



KULTUR AGENDA

Azaleko argazkiak: goitik behera, irudietan "La boda" (uztailak 31, ostirala, Larragetan); "Turistreando" (irailak 6, igandea, Elkarten) eta Gazte ataraldia Urbasa Multiaventurara (abuztuak 22).



Aitzoain
Añezkar
Ballariain
Berriobeiti
Berriogoiti
Elkarte
Larrageta
Lotza
Oteitza



BERRIOBEITI



Argitaratzailea: Berriobeitiko Udalak
L.O.: NA 253-2015
Doan banatzen da



» OHARRAK

PUNTUALTASUNA

Ikuskizuna hasi ondoren, ezin izanen da inor aretoan sartu.

SOINU-SEINALEAK

Aretoan sartzeraoan deskonektatu beharko dira.

GRABAKETAK ETA ARGAZKIAK

Debekatuta daude.

JANARIAK ETA EDARIAK

Aktoreek eta ikusleek merezi duten begiruneagatik, barne-ikuskizunetan ezin izanen da jan, ezta edan ere.

ITZULTZEAK

Sarrera bat erosteko ordaindutako dirua itzultzeko arrazoi bakarra ikuskizuna bertan behera uztea izanen da.

SARRERAK

Zenbakidun sarrerak.

» TXARTEL SALMENTA

Ikuskizunetarako txartelak María de Maeztu Kultur Etxean erosten ahalko dira **emanaldi bakoitzaren aurreko astean**.

Ez da telefono bidezko erreserbarik onartuko.



NAFARROAKO
ANTZOKI
SAREA

LEIHATILAN

(Kultur Etxeko Atezaindegian).
Ikuskizun bakoitza hasi aurreko ordubete lehenagotik.

ALDEZ AURRETIK

www.berrioplano.es webgunean eta Kultur Etxeko atezaindegian, 16:00etatik 21:00etara.

» KULTUR AZPIEGITURAK

KULTURA ZERBITZUA

Udaletxean

Tel: 948 30 31 29

Posta elektronikoa:

cultura@berrioplano.es

MARIA DE MAEZTU KULTUR ETXEA

Iturribidea, 1. Artika.

Tel: 948 38 32 54

Kafetegi-Taberna

Tel: 948 78 31 57

EUSKARA ZERBITZUA

Udaletxean

Tel: 948 30 31 29

Posta elektronikoa:

euskara@berrioplano.es

KIROLA ETA GAZTERIA ZERBITZUA

Udaletxean

Tel: 948 30 31 29

Posta elektronikoa:

deporteyjuventud@berrioplano.es

LIBURUTEGI PUBLIKOA

María de Maeztu Kultur Etxean

Udako ordutegia:

08:30etik 14:30era

Tel: 948 38 26 22

Posta elektronikoa:

bibliarc@cfnavarra.es

ERABILERA ANITZEKO ERAIKINA

BERRIOBEITI

Nuestra Señora de la Purificación, 11.

Ordutegia:

10:00etatik 22:00etara.

Tel: 948 13 18 29

(kafetegi-taberna)

ARTIGUNE I

ARTIKA Leonor

Akitaniakoa, 30

Informazioa:

948 30 31 29

ARTIGUNE II

ARTIKA Leonor

Akitaniakoa, 26

Informazioa:

948 30 31 29

MUSIKA ESKOLA

María de Maeztu Kultur Etxea **Tel:** 616 72 52 18

Posta elektronikoa:

orreagamusika@gmail.com

KONTZEJUEK ETXEA

AITZOAIN:

Oronsuspe auzoa, 3

AÑEZKAR:

San Andres, 6

Tel: 618 77 84 61

ARTIKA

Kontzeju Etxea San Marcial, 9

Tel: 948 38 37 93

“María Domínguez”

Gizarte-Etxea

María Domínguez, 3

Tel: 948 38 37 93

BALLARIAIN:

San Pedro, z/g

BERRIOGOITI:

Santa Eulalia, 39

Posta elektronikoa:

concejoberriosuso@yahoo.es

BERRIOBEITI:

Kale Nagusia, 2

ELKARTE:

Purificación, 16

LARRAGETA:

San Esteban, z/g

Tel: 948 30 21 59

LOTZA: San Joan, z/g

Tel: 690 68 68 50

OTEITZA: San Joan, 6

Tel: 651 65 83 14

» KULTUR ETXEA, FACEBOOKEN

JARRAIGUZU!

Kultur Etxea
facebooken

» LIBURUTEGIAN, UDAN

GOIZEKO ORDUTEGIA

Artikako liburutegi publikoa 8:30etik 14:30etara dago zabalik uda partean (irailaren erdira arte). Zerbitzuak: liburuak eta ikus-entzunezkoak mailegutan uztea; aldizkariak eta eguneroko egunkariak; internet eta posta elektronikoa; arreta eta aholkularitza uneoro. Artikako liburutegi publikoa Nafarroako Liburutegi Publikoen Sarean dago sartuta, eta katalogoa www.navarra.es webean dago kontsultagai.

Ekainaren 15etik
irailaren 14ra
Udako ordutegia
08:30- 14:30
bibliart@navarra.es
948 38 26 22

» 2020-2021EKO UDAL IKASTAROETAN IZENA EMATEA

IZEN-EMATEA / IRAILAK 2 - 8

Lekua baieztatu eta ordaintzea: irailak 10 eta 11.

Ikasturte hasiera: urriak 1.

Helduendako jarduerak:

Zumba, yoga, pilates, swing eta gimnasia aktiboa.

Haur jarduerak: gorputz adierazpena eta psikomotrizitatea, euskaraz mintzatzeko jarduerak A eredu ikasleentzat, Golazen-ekin dantzan, judoa, pilota, gimnasia erritmikoa eta eskalada.

Gazte jarduerak: gazte aisiarako eta eskola laguntzarako gunea. Jarduera guztiak abuztuan etxean jasoko duzun foiletoan bilduko dira, bai udal eskaintza osoa, bai udalerriko beste erakunde batzuek Udalarekin elkarlanean antolatutako proposamenak.

EMAZU IZENA!

Telefonoz
012 – Infolocal
Ordutegia: 08:00-19:00
Ordainketa: txartel bidez



23 OSTEGUNA

PAINTBALL

Zatoz eta gozatu paintball egun dibertigarria. Etorri, jarri ilaran eta ekin.

Berribeiti

Non: Berribeitiako parkea (pista txikiaren ondoan)

Ordutegiak:

17:00 Dianak 5-6 urteko haurrentzat

17:30 - 18:30 paintball saioa 9-13 urte

18:30 - 20:00 14 urtetik gorako gazteentzat



31 OSTIRALA

HAUR IKUSKIZUNA

“La boda”

CALLEJEATRO

Larragetako pilotalekua

Ordua: 18:30

Publikoa: haurrak-familiak

Iraupena: 50 minutu

Antolatzailea: Kultur Zerbitzua,
Larragetako Kontzejarekin elkarlanean



Ezkontzera doan bikote bat aita-amabixien eta gonbidatuen bila ari da kale-komedia lotsagabe eta arras dibertigarrian. Presta zaitetzte urteko ezkontzarako. Familiendako ikuskizun hurbila, egiazko jai herrikoi bat, oso bikote bitxiaren ezkontza ospatzeko. Callejeatrotoren lanik teatralena da, klown tankerakoa erabat, zirku-

saio, antzerki eta animazioaz gainera, ohi dutenez. Lanak familiendako pentsatuak daude. Taldearen dramaturgietan beti ageri da osagai sozial eta hezigarria, jolasaren eta animazioaren bidez iragazia, ikusleen konplizitate parte-hartzailearekin batera.

>> KONTZEJU ARTEKO 1. FITOBOL 3X3 TXAPELKETA



FITOBOL 3X3

Zendeako herrietako neska-mutilendako 3x3 futbol txapelketa. Herri bakoitzeko talde irabazleak Artikako Final Nagusia jokatu du. Sari ederrak izanen dira talde irabazleentzat, eta bidaia bat ere Port Aventura txapelketan kirol keinu onena izan duen jokariarentzat. Txapelketa errolatuentzat izanen da.

DATAK

- ABUZTUAK 16
Aitzoaingo Kontzejua,
goizean Aitzoainen
(Ilargi plaza)
- ABUZTUAK 16
Añezkar, Larrageta,
Elkarte, Lotza,
Ballariain eta Oteitza.
Guztiak arratsaldean,
Añezkarko
pilotalekuan
- ABUZTUAK 23
Berriogoin, goizean.
Berriobeitin,
arratsaldean. Biak ere
Berriobeitiko pistan
- ABUZTUAK 30
Artikan, goizean
(Artikako plaza)
- ABUZTUAK 30
Kontzejuen arteko
Final Handia.
Arratsaldean,
Artikako plazan

Kategoriak:

Aspiranteak (2014-2013)
Benjaminak (2012-2011)
Kimuak (2010-2009)
Infantilak (2008-2007-
2006)
Kadeteak-Jubenilak
(2005-2002)

Informazioa eta izen-ematea:

Facebook eta Instagram:
#berrioplanoporteyjuv
entud. Eta udal webean:
www.berrioplano.es



07 OSTIRALA

HAUR IKUSKIZUNA

“In concert”

TROKOLO

Berriogoitiko pilotalekua

Ordua: 18:30

Publikoa: haurrak-familiak

Iraupena: 60 minutu

Antolatzailea: Kultur Zerbitzua,
Berriogoitiko Kontzejarekin elkarlanean



Urliak eta Berendiak dena prest daukate “Gran Serruchof” hartzeko; pianoa ere zorroztua dute, instrumentuak puntuan, dirua ere prest artistarentzat..., baina, Serruchofek, bat-batean, esan die ez dela joanen, eta kontzertua hasteko zorian dago.

Hantxe hasiko dira eskura duten guztiarekin inprobisatu nahian, baina dena korapilatuko da, baten ordez bi “Serruchof” agertuko baitira, eta are gehiago, haien egiazko asmoa zein den argitzen denean; sosa eramatea.

22 LARUNBATA

GAZTE ATERALDIA

Urbasa Multiaventura: Via Ferrata + Espeleologia

Ateraldian barne dira autobusa, jarduera, monitorea eta aseguruak.

Izen-ematea: 012 Infolokalaren bidez (948 012 012), abuztuaren

3tik 7ra, goizeko ordutegian

Adina: 12 - 30 urte

Prezioa: 7,15 €

Ordainketak: abuztuak
10 eta 11



04 OSTIRALA

IBILALDI OSASUNGARRIAK 2020

Ibilaldi osasungarria Berriobeitin barna

Zatoz gurekin ibiltzera hil bakoitzeko lehen ostiralean. Ostiral honetan, entzumen desgaitasunez eta zeinu hizkuntzaz mintzatu gara udal langile batekin batera, zeinu hizkuntzan irakaslea baita.



Berriobeititik

Ordua: 10:00

Irteera: Berriobeitiko kontsultategia

Iraupena: ordu eta erdi inguru

Izen-ematea: ez da behar

Materiala: eskumakilak badituzu, ekarri. Bestela, guk utziko dizkizugu



04 OSTIRALA

HAUR IKUSKIZUNA

“Amico”

AMICO TEATRO



Adiskidantza handi baten istorioa da. Berrito topatu izanak dakarren poza biziko dugu bi pertsonaia horiekin, bai eta haien amets partekatuak, bestondoa, ezinbestean gertatzen diren tira-birak, eta xede berberak bultzaturik etorriko den behin betiko topaketa. Hizkuntza koreografikoa eta keinu-antzerkia

baliatzen dituzte umorezko unibertso samur hori ikusleei eskaintzeko eta beren adiskidantza ospatzeko. Hitzik gabeko ikuskizuna da, edota hizkuntza ezagunean egina ez dagoena; azken buruan, askatasunaren aldeko aldarria da gerraren zentzugabekeriaren aurka.

Añezkarko pilotalekua

Ordua: 17:00

Publikoa: jende guztia

Iraupena: 60 minutu

Antolatzailea: Kultur

Zerbitzua, Añezkarko

Kontzejuarekin elkarlanean

06 IGANDEA

KALE IKUSKIZUNA

“Turistreando”

TRAPU ZAHARRA

Elkarteko plaza

Ordua: 18:00

Publikoa: jende guztia

Iraupena: 60 minutu

Antolatzailea: Kultur Zerbitzua,
Elkarteko Kontzejuarekin elkarlanean



Bidaia-agentzia batek ahalik eta gehien murriztu nahi ditu turismo masifikatuak ingurumenean eragiten dituen ondorioak. Haren produktu berrirako ideia ren funtsa da bidaia birtualak diseinatzea. Horretarako aurrekusi du aplikazio bakarra eta pertsonalizatua programatzea, oporrak nahieran antolatzeko. Hortaz, zuzenean ikusiko dugu aplikazio horietako baten diseinua. Horretarako,

zozketa eginda aukeratutako boluntario batek bere bidaietan bizi izandako esperientziarik onenak eta okerrenak berriz biziko ditu. Bilduma horretatik aterako da, hain zuzen ere, etorkizuneko bidaia birtuala, pen-drive batean jaso. Baina, ai ene!, hori teoria da. Errealitateak erakutsiko baitu turistaren burmuinak uste baino modu konplexuagoan funtzionatzen duela...

11 OSTIRALA

HAUR IKUSKIZUNA

“Historias con Jano”

JANO

Janok bere bidaiari helduko dio, txoko bakoitzera zirkuaren magia eta fantasia eramateko. Pertsonaiak bere alderik ausartena erakutsiko digu, bere nortasunik bizien eta samurrena agertuta. Kutxa bat da, eta kutxa barnean kapela hegalaria, mazo dantzariak, ezkila abeslariak, mikrofono hizlariak, bola flotatzaileak, irri egiten duten bozinak, kantu besarkada-emaileak eta bizipoz liluragarriak.

Lotzako plaza

Ordua: 18:30

Publikoa: haurrak-familiak

Iraupena: 65 minutu

Antolatzailea: Kultur Zerbitzua,
Lotzako Kontzejuarekin elkarlanean

